

# Errenteria

HERRI BIZIA



## ERRENTERIAKO EMAKUMEEN ELKARGUNEA *punto de encuentro para las mujeres de Errenteria*



Emakumeen  
etxea

3. ORR. >>

Argazkiak

6. ORR. >>

HerriBizia

8. ORR. >>

Beraun

12. ORR. >>

Agenda

15. ORR. >>

# BERDINTASUNA

## BERDINTASUNERAKO AHOLKU KONTSEILUA

hilabetero biltzen den parte-hartze organo irekia eta berdintasun politiken jarraipena eta sustapena egiten du.

Consejo Asesor de Igualdad: órgano de participación abierto que se reúne todos los meses con el fin de hacer un seguimiento y fomentar las políticas públicas de igualdad.

### ¿QUÉ ES EL EMPODERAMIENTO?

Empoderamiento al proceso de concienciación y aprendizaje personal y colectivo, a través del cual las mujeres denunciamos y luchamos contra la situación de discriminación e inferioridad social que impone el sexismo en todas las sociedades del mundo.

### 2016-2017 IKASTUREAN (3. EDIZIOA)

#### 146 emakume

ADINA:

16-30 = 24 emakume

31-50 = 51 emakume

> 51 = 60 emakume

zehaztu gabe = 11 emakume



### HELBURUAK

- 1/ Emakumeak ahaldundu
- 2/ Emakumeon arteko sareak indartu
- 3/ Feminismoaren eta berdintasunaren inguruko sensibilizazioa eta prestakuntza

### GAIAK

Feminismoa · Kulturaren birdefinizioa · Gorputza, sexualitatea eta osasuna · Parte-hartze sozial eta politikoa · Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa · Kulturartekotasuna eta solidaritatea

## AURRE KONTUAK

### SENSIBILIZACIÓN

%20,28

Martxoak 8 · Azaroak 25 · Jai parekideak / Fiestas igualitarias · Emakumeen kontrako indarkeria

### EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES

%69,86

Eraldaketa Feministarako Eskola · Emakumeen Etxea · Casa de las Mujeres · Auzoetako emakumeen programa · Programa de mujeres de los barrios

### RECUPERACIÓN Y VISIBILIZACIÓN APORTACIONES DE LAS MUJERES

%9,68

Mariasun Landa Sariak · Emakumeen kirola · Oroi-men historikoa / Memoria histórica

# EMAKUMEEN ETXEA LA CASA DE LAS MUJERES

## Elkargune askea Errenteriako emakumeentzat

Es una reivindicación que viene de lejos, pero al fin, Errenteria tendrá una Casa de las Mujeres; como ya lo tienen Donostia, Azpeitia, Arrasate, Ermua... Decenas de mujeres de todos los barrios y de todas las edades han participado en un proceso abierto, definiendo cómo será el edificio y su uso. Será construido en el parque Txirrita, para abrirlo definitivamente en 2018. Pretende ser un espacio libre, acogedor y participativo gestionado por y para las mujeres.





**A**spaldiko eskaera zen eta azkenean bai, Errenteriak Emakumeen Etxea izango du. Udalak baliabideak jarri ditu, baina abian jarriko bada, herri honetako emakumeek eta elkarteek egin duten lanari esker izango da. Txirrita parkean eraikiko da, 2018an irekitzeko aurreikuspenarekin. Emakumeentzako espazio askea eta parte hartzailea izan nahi du: babesgunea, elkargunea, toki eroso. Ez da gutxi.

“Argi geratu da Emakumeen Etxea behar dugula, nahi dugula, eta prest gaudela horretan lan egiteko”. Hala uste du Garazi Lopez de Etxezarreta Berdintasun zinegotziak. Emakumeen Etxea definitzeko prozesuan parte hartu du dozenaka emakumerekin batera, eta pozik dago, jendetsua ez ezik, anitza ere izan delako. Gauza bera uste du Karmele Fernandez Bogak, prozesuan parte har-

tu duen errenteriarrek: “Askotan zalantzan jartzen dugun arren, argi geratu da emakumeok parte-hartze politiko eta sozialerako gaitasun handia dugula. Gure asanbladak bi ordu eta erdikoak izan dira, eta oso eraginkorrak. Asmo eta epe guztiak bete ditugu”. Orain, lan hori guztia eta gero, inoiz baino gertuago dute Etxea.

Errenteriako Emakumeen Etxeak erreferentziatzeko gunea izan nahi du beste emakume batzuekin egon nahi duten Errenteriako zein eskualdeko emakumeentzat: erreferentzia, maila fisikoan zein sinbolikoan. Zertarako, ordea? Formakuntzarako, jabeakuntzarako harremanetarako, aktibismo sozio-politikorako, beste emakumeen babesa edo/eta informazioa eskuratzeko... Beti ere, erdigunean jarrita emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta feminismoa.

### Desberdinen elkargunea

Emakumeen Etxeak zer ekarriko dien galdetuta, ideia asko etorri zai-zkio burura Etxabeguren Aranzabali. Berak uste du gazteei emango diela belaunaldi desberdinetako emakumeekin harremanetan jartzeko aukera, eta hori oso aberasgarria izango dela. Kolpe Moreako kide honek dionez, kultura eta jatorri desberdinetako emakumeen elkargunea ere izango da azpiegitura berria. Emakumeen arteko sareak sortzeko eta indartzeko gunea, azken batean, arnasmunea.

Eskaintza hori ordea, ez da izango beste edozein udal eraikinek eskaintzen duenaren parekoa. Etxearen ardura eta kudeaketa oinarrituko dira udalaren eta bertako kide izan nahi duten emakumeen eta emakume-elkarteen arteko lankidetzan zein ardura partekatuan, bakoitzak dago-kiona bere eginez eta lankidetzan hori garatzeko espazioak bermatuz.

#### PAKI MORENO MORENO

“Ha sido una lucha y una reivindicación constante desde hace muchos años. Ahora, cuando por fin hemos tenido la oportunidad de definir la Casa, ¿Cómo no íbamos a poner todo de nuestra parte?”

#### ELI ETXABEGUREN ARANZABAL

“Nos dará la oportunidad de relacionarnos con mujeres de otras generaciones. Será también un punto de encuentro para las mujeres de diversos orígenes y culturas que convivimos en Errenteria.”

#### AIZPEA OTAEGI MITXELENA

“Pretendemos que sea un espacio que atraiga a muchas mujeres, y que todas lo sintamos como nuestro. No es una casa de cultura para mujeres; es un espacio libre que podremos utilizar flexiblemente para relacionarnos, ayudarnos y llevar a cabo proyectos en común.”

### Etxekide izateko aukera

Horretarako, 16 urtetik gorako edozein emakume etxekide bilakatu ahal izango da; izena eman eta etxekide gisa eskubide eta egite-

ko batzuk onartzea espero dute prozesuaren eratzailerek, nahiz eta eskubide eta betebeharrorik ez diren zehaztu. Aizpea Otategik ere parte hartu du prozesuan, “udalak baliabideak jartzen baditu

ere, guk ere badauzkagu Emakumeen Etxearekiko ardura, erantzukizuna eta erabakimena”

Erabakiak hartzeko ere parte-hartzea bermatuko duen egiteko modua proposatu dute. Urtean lau aldiz bilduko den batzar irekia izango da erabakigune nagusia. Horrez gain, koordinazio talde bat ere izango da, eta bere egitekoak izango dire udalarekiko harremanak, kudeaketa eta lan teknikoagoak. Batzarreko ordezkariak, udaleko Berdintasun zinegotziak eta Emakumeen Etxearen dinamizatzaileak osatuko dute koordinazio gunea.

Eraikinari berari dagokionez, dinamizatzaile bat edukiko du, harrera egin eta kudeaketan laguntzeko. Erabilera askorako emango duen espazio irekia izango da Etxearen erdigunea, baina bulegoa, bilera gelak eta emakume taldeek beraien gauzak gordetzeko biltokia izango ditu. Halaber, parkean egongo denez, kanpoko zelaiak ere erabili ahal izango dituzte. Emakumeek proiektuez, harremanez, elkar laguntza-sareaz osatu eta eraikiko duten gunea izango da Errenteriako Emakumeen Etxea, eraikin bat baino gehiago, alegia.





# Atlantikaldia 2017





informate del día a día en  
herriko egunerokotasunaren  
berri izateko



**HERRI BIZIA**  
herribizia.errenteria.eus



## Ele! Lorca-Lauaxeta

Una obra en el marco de un proyecto de investigación que tiene el reconocimiento y la reparación como objetivo



## Hibaika

Denboraldi arrakastatsua



## Servicios públicos en Lartzabal

Esta séptima instalación avanza en el plan que incluye todo Errenteria



## Alabergako igogailua abian mugikortasuna areagotuz






## Atlantikaldia

Auzoetara zabaldu da Atlantikaldia laugarren urtean



## Comete sarea

XVIII travesía conmemorativa de la red “Comète” en el País Vasco



## Nueva app municipal

Herri Bizia, Errenteria eta udala zure eskuetan

Consiguela en [herribizia.errenteria.eus/app](http://herribizia.errenteria.eus/app)

## //udal taldeen mezua//

### CONSTRUCCIÓN DE 51 VIVIENDAS PARA JOVENES EN ARRAMENDI

[PSOE] Gracias a la reorientación de la política del departamento de vivienda del Gobierno Vasco dirigido por el consejero socialista Iñaki Arriola, se va a proceder a impulsar el alquiler de viviendas para jóvenes en la villa.

Dentro de estas iniciativas se encontraban entre otras la construcción de 51 viviendas dotacionales para jóvenes de Errenteria en el sector 36: Arramendi.

La gestión y el interés del grupo municipal socialista por apoyar a los jóvenes han dado sus frutos y como resultado la puesta en marcha de un convenio entre ambas instituciones que estaba parado. Los jóvenes verán más cerca y con más esperanzas la posibilidad de poder lograr emanciparse e intentar crearse un proyecto de futuro que pueda ser sostenible económicamente.

### BETI KATALUNIAREKIN

[EAJ] Kataluniako herriak argi eta ozen azaldu du bere erabakitzeko nahia eta herritik sortutako mugimendu honen aurrean, Kataluniako agintariek egin beharrekoa egin dute, herriari eman diote hitza. Espainiar Gobernuak ordea, nahiago izan du espainiar legedia, maiz beraiek ere betetzen ez dutena, inposatzea eta herriaren eskaerei entzun gortegitea. Katalunia, Euskadi bezala, nazio bat da, eskubide politikoak dituen subjektu politikoa. Erreferenduma ukatzea, kataluniar herriaren existentzia bera ukatzea da, hau da, errealitatearen aurka joatea. Kataluniak eta Euskadik ibilbide desberdinak izan ditugu, gure testuinguruak desberdinak izan dira eta testuinguru horietan hartutako erabakiak, beraz, desberdinak. Baina momentu gogorretan Agirre Companysekin egon zen bezala, momentu hauetan ere, noski, elkarrekin gaude.

### EN ERRETERIA VAMOS A RECICLAR EL 60% Y MÁS

[IrabaziZ] Errenteria IrabaziZ valoramos el paso adelante que supone la aprobación definitiva de la ordenanza de residuos.

Es una buena ordenanza. Destacamos el grado de coincidencia de los cuatro grupos municipales y las aportaciones de personas y colectivos que con sus alegaciones en el plazo de exposición pública han contribuido a mejorarla Ordenanza que nos tiene que servir para alcanzar un 60% de reciclaje y más en 2019.

Ahora es el turno de la ciudadanía. Pedimos tu colaboración para conseguir una Errenteria más limpia y saludable.

Ordenantza honekin Udalak beste urrats bat eman nahi du zabortegietara hondakin gutxiago bildatzeko: alde batetik herriko ekonomiari gutxiago eragiteko, eta bestetik, eragin txikiagoa izateko osasun publikoan, ingurumenean zein klima aldaketan.

### FEMINISMOAZ, BERDINTASUNA

[EH Bildu] Silvia Federici idazleak esaten du emakumeen kontra hainbeste bortizkeria onartzen duen gizarteak ezingo duela eraldaketaren borroka irabazi.

Oinarrian botere erlazio ezberdin egoera batek, automatikoki, zaintza lanengatik, soldata baxuagoak izateagatik, emakumeak botere guzuetatik at jartzeagatik etab. gizartearen erdia jartzen baitu borroka eremutik kanpo. Edo gain esfortzu bat eskatzen die emakume hauei eraldaketaren aldeko borrokan militatzeko. Beraz, gure mugimenduaren erdia kokatzen du patriarkatuak, potentzialki bada ere, borrokatik kanpo.

Horregatik da hain beharrezkoa feminismoa eta emakumea zentralitatera ekartzeko pausuak ematea mugimendu popularrentzat, botere erlazio ezberdinak iraultzeko bidea delako; gizarte justuago bat nahi dugunontzako tresna delako alegia.



## Beraun, un barrio con mucha vida

### Beraun: auzolanak biziberritzen duen auzoa

*Orotariko elkarteak daude Erreterian. Haiei esker, eta lan boluntarioarekin, mota guztietako proiektuek egin dute bidea, besteak beste, auzotarrei aisialdi atseginagoa eskaintzeko. Auzoak komunitate bihurtzen dituzte; eta auzokideak, bizilagun. Horren adibide dira, esaterako, Beraunen 30 urtez lan horretan aritu diren bi elkarte: Gaztelan eta Beraun Bera.*

Las asociaciones culturales, gastronómicas y de todo tipo son esenciales para hacer de una ciudad un lugar donde vivir; de un barrio, una comunidad. Eso mismo ocurre en Beraun, donde cientos de personas de varias asociaciones llevan años trabajando voluntariamente para ofrecer un día a día más agradable a sus vecinos y vecinas. Sirvan como ejemplo Gaztelan y Beraun Bera.

#### Gaztelan

Como su propio nombre indica, Gaztelan trabaja con los y las más jóvenes para ofrecerles un ocio alternativo. Cada viernes, y acompañados por los monitores, se reúnen en grupos para jugar, hacer dinámicas... El objetivo es pasarlo bien y, al mismo tiempo, trabajar valores básicos como la importancia del grupo, la solidaridad, la igualdad entre

hombres y mujeres o el valor de la pluralidad. Lo hacen, además, limitando el uso del móvil, algo que no es fácil con adolescentes de 12-15 años. "Queremos mostrarles que hay otras formas de disfrutar".

David y Cristina son ahora monitores que desde los 16 -ahora tiene 25 años- dedican su tiempo libre a Gaztelan. Lo hacen para recoger el testigo de quien

*Helburua nerabeek ondo pasatzea da eta, horrekin batera, balio oinarrizko batzuk sustatuz: berdintasuna, aniztasuna, taldearen garrantzia...*



lo hizo en su infancia, y porque es muy satisfactorio: "Hace muchos años que los conocemos y acuden a nosotros cuando tiene cualquier problema. Hemos creado un espacio seguro para ellos y ellas. Es muy gratificante ver que grupos se han formado, y como han cambiado para bien".

Actualmente cuentan con cerca de 50 niños y niñas de varias edades, y ocho monitores y monitoras, por lo que están en un "buen momento". Sienten, además, el apoyo del vecindario. "Muchas veces nos preguntan cuando será la próxima salida de fin de semana, o que hay que hacer para empezar a venir. Además, algunas personas que en su día fueron parte de Gaztelan han tenido hijas e hijos que nos traen para que repitan lo que vivieron". Relevo generacional, dicen. Es el fruto de más de 30 años de trabajo voluntario.

#### Beraun Bera

Beraun Bera, por su parte, es una sociedad gastronómica situada en la parte baja de Beraun. Fundada en 1984 -destaca por ser mixta desde sus inicios- cuenta actualmente con 106 socios y socias. Pero es, también, mucho más que eso. El propio mural de la entrada muestra algunas de las muchas actividades relacionadas con la sociedad: el equipo de baloncesto que patrocinan, el coro, el torneo de pala, el grupo de euskal dantza, el equipo de ajedrez... En algunos casos, es



**Elkarte gastronomikoa izateaz gain, xake taldea, dantza taldea, koroa eta beste hainbat aktibitate lagundu eta antolatzen ditu Beraun Berak**

la propia asociación la que los organiza, y en otros, se limita a dejar el local y ayudar con el material que haga falta.

Tal vez, el grupo que más destaca es el de ajedrez, federado y con el que algunos y algunas compiten incluso a nivel estatal. Tanto es así que cuentan con una sala propia dentro de la sociedad. De la mano del profesor Juan Manuel Riesco cientos de erreterriarras han aprendido a jugar al ajedrez en los 25 años que ya tiene el equipo. Otra actividad llamativa es la que congrega a decenas de jóvenes los fines de semana: las Magic, un juego de cartas intercambiables con los que se orga-

nizan torneos. “Es una pasada cuanto gente se junta. Algunos jugamos al mus, y otros juegan a esto”, dice sonriente ‘Masa’, presidente de la sociedad.

¿Pero cómo financian tantas actividades? Pues lo hacen con la cuota mensual de los socios y el dinero que se obtiene de las consumiciones en la sociedad gastronómica. El local es municipal, pero todos los arreglos y las innovaciones decorativas las hacen los propios miembros, de forma voluntaria y con mucho mimo. Ese tipo de cosas hacen que Beraun Bera sea “una de las sociedades que mejor funciona en Erreterria” concluye Masa.

# //agenda//

## urriak 14 Landalurraren azoka

*Egun osoan zehar | Zumardia*  
Zer?: Erreterriako nekazal eremuko eta baserriarren produktuen erakusketa eta salmenta.  
Antolatzailea: Behemendi Landa Garapenerako Elkartea eta Erreterriako Udala

## urriak 20 Mobil

*18:00 | Niessen Kulturgunea*  
Zer?: La Güasa Circo Teatro konpainiaren haurrentzako antzerki emanaldia.  
Sarrera: 3 euro  
Antolatzailea: Erreterriako Udala, Kultura Kreatiboa

## urriak 20-22 XXXIX. Euskal Herriko “Ereintza” Eskulangintza Azoka

*18:00 | Merkatuzar*  
Antolatzailea: Artiola

## urriak 22 Perplejo

*19:00 | Niessen Kulturgunea*  
Zer?: Il Maquinario Teatro konpainiaren antzerki emanaldia.  
Sarrera: 8 euro  
Antolatzailea: Erreterriako Udala, Kultura Kreatiboa

## urriak 27 – azaroak 11 Emeek emana

*Merkatuzar*  
Zer?: Mauro Saraviak egindako argazkiez eta hauen kontakizunez osaturiko erakusketa.  
Antolatzailea: Erreterriako Udala, Kultura Kreatiboa

## azaroak 12 El cielo ahora

*19:00 | Niessen Kulturgunea*  
Zer?: Olatz de Andresen dantza ikuskizuna.  
Sarrera: 8 euro  
Antolatzailea: Erreterriako Udala, Kultura Kreatiboa

## azaroak 16-19 XXII. Erreterria Film Laburren Jaialdia

Zer?: azaroak 16, 17 eta 18: Jaialdirako hautatuko lanen proiektzioa, Niessen zinemetan.  
Azaroak 19: Sari banaketa, Niessen Kulturgunean  
Webgunea: film.erreterria.eus  
Antolatzailea: Erreterriako Udala, Kultura Kreatiboa

## azaroak 18 Feria Economía Social

*Egun osoan zehar | Merkatuzar*  
Antolatzailea: REAS Euskadi, Olatukoop eta Saretuz

## azaroak 24 Linbo planeta

*18:00 | Niessen Kulturgunea*  
Zer?: TDejabu Panpin Laborategiaren haurrentzako ikuskizuna.  
Sarrera: 3 euro  
Antolatzailea: Erreterriako Udala, Kultura Kreatiboa

## azaroak 20-26 Herrien astea

Antolatzailea: Mikelazulo Kultur Elkartea

## azaroak 27-abenduak 3 Euskararen astea

Antolatzailea: Lau Haizetara Euskalzaleon Elkartea

## abenduak 3 Miss Karaoke

*18:00 | Niessen Kulturgunea*  
Zer?: Metrokoadroka taldearen antzerki emanaldia.  
Sarrera: 8 euro  
Antolatzailea: Erreterriako Udala, Kultura Kreatiboa

## abenduak 15 Sueños de arena

*18:00 | Niessen Kulturgunea*  
Zer?: Borja Ytuquepintas konpainiaren haurrentzako antzerki emanaldia..  
Sarrera: 3 euro  
Antolatzailea: Erreterriako Udala, Kultura Kreatiboa



# autobus urbanoak U11, U22 eta U44

## U11 GALTZARABORDA - BERAUN - KAPUTXINOAK

Morrongilletatik irteerak *Salidas de Morrongilleta*

Astelehenetik ostiralera <i>de lunes a viernes</i>	Larunbatetan <i>Sábados</i>	Igande eta jaiegunetan <i>Domingos y festivos</i>
08:00, 08:30, 09:00, 09:30, 10:00, 10:30, 11:00, 11:30, 12:00, 12:30, 13:00, 13:30, 14:00, 14:30, 15:00, 15:30, 16:00, 16:30, 17:00, 17:30, 18:00, 18:30, 19:00, 19:30, 20:00, 20:30, 21:00, 21:15, 21:30, 21:50, 22:10.	08:30, 09:10, 09:30, 10:10, 10:30, 11:10, 11:30, 12:10, 12:30, 13:10, 13:30, 14:10, 14:30, 16:10, 16:30, 16:50, 17:10, 17:30, 17:50, 18:10, 18:30, 18:50, 19:10, 19:30, 19:50, 20:10, 20:30, 20:50, 21:10, 21:30, 21:50, 22:10.	10:50, 11:10, 11:30, 11:50, 12:30, 12:50, 13:10, 13:30, 13:50, 14:10, 17:10, 17:30, 17:50, 18:10, 18:30, 18:50, 19:10, 19:30, 19:50, 20:10, 20:30, 20:50, 21:10, 21:30, 21:50, 22:10.

## U22 GALTZARABORDA - BERAUN - KAPUTXINOAK - NAFARROA ETORB. - FANDERIA - LARTZABAL

Astelehenetik ostiralera <i>de lunes a viernes</i>	Larunbatetan <i>Sábados</i>	Igande eta jaiegunetan <i>Domingos y festivos</i>
<p>Morrongilletatik irteerak <i>Salidas de Morrongilleta</i></p> <p>07:45, 08:15, 08:45, 09:15, 09:45, 10:15, 10:45, 11:15, 11:45, 12:15, 12:45, 13:15, 13:45, 14:15, 14:45, 15:15, 15:45, 16:15, 16:45, 17:15, 17:45, 18:15, 18:45, 19:15, 19:45, 20:15, 20:45.</p> <p>Lartzabal anbulatoriotik irteerak <i>Salidas de Lartzabal ambulatorio</i></p> <p>08:05, 08:35, 09:05, 09:35, 10:05, 10:35, 11:05, 11:35, 12:05, 12:35, 13:05, 13:35, 14:05, 14:35, 15:05, 15:35, 16:05, 16:35, 17:05, 17:35, 18:05, 18:35, 19:05, 19:35, 20:05, 20:35.</p>	<p>Morrongilletatik irteerak <i>Salidas de Morrongilleta</i></p> <p>08:50, 09:50, 10:50, 11:50, 12:50, 13:50.</p> <p>Lartzabal anbulatoriotik irteerak <i>Salidas de Lartzabal ambulatorio</i></p> <p>09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05</p>	Ez dago zerbitzurik.

## U44 GALTZARABORDA - BERAUN - TXIRRITA MALEO - MASTI LOIDI

Morrongilletatik irteerak  
*Salidas de Morrongilleta*

Astelehenetik ostiralera lanegunetan abuztuan izan ezik  
*de lunes a viernes laborables excepto agosto*  
07:30



u5, u6, u7 eta u33aren ordutegiak hurrengo alean *los horarios del u5, u6, u7 y u33 en el próximo número.*

**Zure iritzia eman nahi duzu?**  
**¿Quieres proponer contenido para la revista?**

Izena **Nombre** \_\_\_\_\_ Telefonoa **Teléfono** \_\_\_\_\_

Posta elektronikoa **Dirección electrónica** \_\_\_\_\_

Iradokizuna edo eskaera  
**Sugerencia o petición** \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

[herribizia.errenteria.eus](http://herribizia.errenteria.eus)



**HERRI BIZIA**  
etorkizunaren bidean